

Arantzazuko sermolariak herri-misioetan

Joseba Intxausti / Jose Maria Lete

Frantziskotarrak, edo nahiago bada «Arantzazuko fraideak», batez ere sermolari edo predikari bezala ikusi izan dira gure herrietan. Ez da harritzekoa, zeren, historialariek diotenez, iraganean ere Arantzazuko fraideek arretaz zaindu izan zuten Hitzaren predikuaren zeregin hau, eta Santutegiak beti izan ditu bere sermolari edo predikariak XIX-XX. mendeetan.

1. FRAIDE ORO, HITZAREN ZERBITZARI

Probintzia izanberritu zenetik hona (1859, 1886), prediku-laneko frantziskotarren konpromezua hedatu baizik ez zen egin, ikuspegi ezberdinetatik: hasteko, lehenago batean ez bezala, fraide apaiz denak bilakatu ziren sermolari ere, beharreko ziren legezko baimenak lortu ondoren, noski. Bigarren, hori jakinki, apaizetarako ikasketetan sermolari-prestaketari bere lekua eman zitzaion, nolabait esateko Seminario Txikitik hasita (jedaurreko agerpenak, deklamazioa, etab.), eta apaiz-ikasketak amaitzean, ikastaro berezia eratu izan zen apaiz berrientzat, «Curso de Oratoria» zeritzan batekin.

Horrela, aurreko mendeetako Misiolari-Kolejioetan predikariak zuen prestakuntza berezituagotik sakonean galdu zena, Izanberrikuntzaren ondoren komentu orotako apaiz fraide guztien prestakuntza irabazi zen. Gero, prestakuntza orokor horretaz baliaturik, bakoitzak eman izan du ahal eta aukera izan duena, norberaren gaitasunen arabera. XX.ean, fraide apaiz denek jakin izan dute hizlari izaten, modu arruntean nahiz arrakastatsuagoan.

2. PREDIKU-SASOI BEREZIAGOAK

Urteoro izan ohi da San Joan Hernani edo Tolosan, San Prudentzio Gasteizen, San Bartolome Zegaman eta San Roke Gernikan, eta jai bakoitzak bere hizlaria behar zuen. Egun horietako panegirikoak izan dira Arantzazutik egindako prediku-mota

bat. Santuen jaiek prediku-egutegian beren ohiko lekua izan dute, eta dute, Andre Mariaren bizpahiru jai betikoek bezala.

Bestalde, Abendua eta Garizuma (inauterietatik Bazkora doan aldia) aparteko prediku-garai bereziak gertatu dira: ezin zen jardun berezirik gabe gelditu aste haietan (Gogo-Jardun gutxi-asko luze-laburtuak, Garizuma-sermoi multzoa, Kalbarioak), eta zenbait urtetatik behin Herri-Misioak. Hala ere, azken hauek ohiko jardunetik irteten ziren gertakariak ziren.

Urteko jardunean, Garizumako buru eta bihotz Aste Santua izan da, herri batzuetan, gainera, bertako urteko jai handien artean zegoena. Arantzazuko komentua Aste Santuko Hirurren handirako hustu egiten zen (eta da), nahiz eta Santutegiko bertako ospakizun ongi zainduak ere arreta oso eskatzen duten. Egun horien aurretik, aitzineko asteetan ere, berriaz sermolariak jada herrietako lanetan ibili izan dira, eta Aste Santuan gainerako fraide-apaiz libre denak joaten ziren (eta dira) deia jasotako herrietara, elizkizunetan lagundu eta urteko sermoi landuenak egitera.

Gisa berean hustu izan da Arantzazu abenduan, Sortzez Garbiarenean. Gainerakoan, indar apalagoa izan dute Santu Zaindarien egunek. Kontzilio ondoren hainbat gauza aldatu denean, herri-jaietako panegirikoek baino kristau-heziketarako predikuek ezagutu dute aldakuntza larriagorik XX. mendean.

3. ARANTZAZUTIK HERRI-MISIOETARA

Predikuaren mundu honek bere konplexutasuna izan du, bere ohizko eta ezohizko jardunekin, eta Arantzazu ez da izan, horretan, salbuespena, alderantziz baizik. Ohar labur hauetan ez dugu, ordea, mende osoko eta mota guztietako prediku-lanen albisteak biltzen ibiltzerik, eta azter-eremua

■ AITA DANIEL BAERTEL MIOTA (1854-1922)
Frantziskotarren eta Euskal Herriko sermolarrien historian legenda itzalezina gertatu da Aita Daniel Baertel durangarra. Hizlari mitikoa izan zen bere entzule eta garaikoen artean, eta halaxe pasa da ondokoen oroitzapenera ere: 13.500 sermoi egitera iritsi omen zen, 45 urteko prediku-lanean. 1870ean hartu zuen abitua, eta laster esklastraturik aurkitu zen, behartuta. 1876an egin zen apaiz, eta harrez gero Euskal Herri osoa zeharkatu zuen, herriz herri, elizaz eliza; jai handietako sermolaria izan zen, miretsi eta maitatua. Euskal Jaietako sermolaria ere bai, Durangon (1885) eta Zumaian (1900); argitaratuta daude hitzaldi hauek. Zarautzen hil zen.

*PADRE DANIEL BAERTEL MIOTA (1854-1922)
El Padre Baertel fue un predicador de excepción que despertó la admiración y asombro de las multitudes y las élites, tanto en Misiones como en celebraciones mayores. Durante casi medio siglo (1876...) fue predicador constantemente solicitado por pueblos e instituciones de todo el país.*



alor jakin batera bilduko dugu, bereziki: Herri-Misioen eremura.

Frantziskotarren Etxeetan, ikertzailearen zorionerako, bertan eta bertatik egindako prediku-lanek aztarna zehatza utzi dute komentuetako Kroniketan, hauek idazten hasi ziren lehen urteetatik (1912...) 1970a arte edo. Probintziako Kronikariak (Aita J. Rz. de Larrinagak) emandako idatz-arauen arabera, hilabetez hilabete jaso behar zuen etxeko berriemai-leak fraideen sermioen albistea: zenbat izan ziren halako ekitaldiak, nork, non eta zein egokieratan emanak. Horri esker, gaur egun atzemangarria da komentuz komentu berrogeita hamar urte haietako (c. 1920-1970) predikuen eboluzio koantitatiboa eta unean uneko lanaren hedapen geografikoa.

Kronikari horien arrastoan ibiliko gara, hortaz, albiste zaharrak hona ekartzean.

Esan dugu: prediku-lana urteko egutegi jakin baten arabera egin ohi zen Kontzilio-aurre hartan. Komentuak, Senitarte bezala, urteko jarduera egitarautua izaten zuen, eta lanaren banaketa Aita Goardianoaren esku zegoen, bata hona eta beste hara halako eta bestelako egunetan bidaltzeko. Hala ere, beti zeuden alde zurretik programatu gabeko zereginak ere: herriren bateko jaiak zirela, ekitaldi liturgikoren bat eta ezohizko ospakizunak.

Orrialde hauetan ez dugu denaren berri emango, eta gure artean sona handia izandako Herri-Misioei buruz mintzatuko gara, Arantzazutik ere egindako lanetan prediku-jarduera berezi honek izan zuen garrantziagatik eta Santutegiaren prediku-hedapena ongi erakusten digulako.

3. 1. Misio-urteak (1944-1984)

Eskura ditugun datuen arabera, berrogei/berrogeita bat urtetan (1944-1984) 176 misio eman dituzte Arantzazuko sermolari misiolariak. Lehenago, gerraurreko zenbakiak oso apalak izan ziren, eta garaiko sermolari finenak edo ez ziren Arantzazun bizi, edo molde honetako predikura ez ziren

sobera eman (ik., adibidez, 1932ko albistek *Arantzazu* aldizkarian); etxe barruko kronikariak ez du deus esaten espero zitezkeen Misioez. 1930. etako hamarkadan, urte bakar batean altuenik lau misio eman ziren Arantzazutik (1935), eta kasu honetan Gotzainaren Misio-dei eta plangintza orokorrean parte hartuz, hain zuzen. Ondoko historiak esango da hemen zertxobait.

Misioek beren antola-arauak zituzten, baita misiolari-taldeak edo bikoteak osatzeko usadioak ere. Normalean, Santutegiak predikari bakarra bidaliz hartu ohi zuen parte Herri-Misioetan (hau da, sarritan bikote-laguna beste komenturen batetik zetorrela). Hainbatetan lagun bat baino gehiago ere joan zitezkeen Arantzazutik hautatutako herrira: bi misiolari (42 Misiotan), hiru (2) edo lau (2).

1944an bi herritan eman ziren Misioak, eta ondoko urteetan gora egin zuen lan honek, gehienetan 6-8ren arteko kopuruarekin 1961eraino. Arantzazutik Misiorik gehien



▶ AITA MANUEL UMEREZ (1861-1934)
Aita Baertel-en belaunaldi bereko hau oñatiarra zen, eta garaiko sermolari onen artean lekutu behar dugu. Koruaren Zuzendari izan zen Arantzazun (1888-1890, 1892-1901), eta hirugarrendarren artean erromesaldien antolatzaile Bizkaian. Oñatiko Euskal Jaietako sermolaria izan zen, eta hitzaldia argitara emanda dago (Donostia, 1903). Donostian hil zen.

PADRE MANUEL UMEREZ (1861-1934)
Es religioso de la generación de Baertel, y predicador notable. Tomó parte en el programa de las Fiestas Eúskaras de Oñati. Nacido en esta población, murió en San Sebastián.

emandako urteak 1954a eta 1963a izan ziren, hamaikana Misiorekin. Hala ere, lanbide hau bere gorentasun osoan zelarik, berehalako urteetan ez zuen horrek izan tamaina bereko segidarik. Ezustean etorri zen espero ez zen beharaldia, hain zuzen frantziskotarretan Herri-Misioei antolamendu eginagoa eman nahi izan zitzairen uean.

1960. etako hamarkada izan zen Herri-Misioen prediku-moldeak (gutxienez XVIII. mendetik zetorrenak) lur jo zuen uea. Arantzazun —kanpotik Aita Kerexetaren laguntzarekin— fraide bakarra izango da horri, bere molde zaha-

► MISIO-BUKAERA, OÑATIN (1954)

Frantziskotarrek tradizio luzea izan dute Euskal Herrian herri-misioaldi hauetan, eta Probintzia izanberitu zenetik, ehundaka eta ehundaka Herri-Misio eman zituzten, batez ere 1965a ingurua arte. Argazkian, Oñatin eman zen Misio-amaierako ekitaldia, herriko plaza nagusian. 1954ko martxoaren 14-21 etan izan zen Misio hau, eta hizlariak Pedro Aranguren, Julian Lasa, Julian Alustiza eta Fermin Altube izan ziren. Ikusten denez, Arantzazuko Amaren aurrean burutu zen ekitaldia.

CLAUSURA DE LA MISIÓN, EN OÑATI (1954)

La tradición franciscana de las Misiones populares ha tenido un notable arraigo en el País Vasco, ya desde siglos pasados, y también tras la restauración de la Provincia religiosa en el último cuarto del s. XIX. En la post-guerra conoció un auge importante esta modalidad de predicación. Foto: Acto de clausura de la Misión dada en Oñati en marzo de 1954.



rrean, jarraipena ematen ahalegindu zena (Luis Esnal: 1970-1984). Gainerakoan, Misio-jarduerak Gogo-Jardun berrituei utzi zien lekua.

3. 2. Herriz herri predikuan

Misioetara bakarrik mugatuz, 1944-1984. etako Arantzazuko zerbitzu honek gutxienez 93 Misioaldi eskaini ditu euskal herrietan (herriz identifikatuak eta gabeak), Kronikatik landu dugun estatistikaren arabera. Esan beharra dago urte-zerrenda horren barruan Euskal Herrian emandako azkenekoa Nafarroako Arribekoa izan zela, 1983an (Esnal).

Nola banatu zen lan hau Hegoaldeko herrialde ezberdinetan? Identifikatu ditugunak honela banatzen dira herrialdeka: Gipuzkoan 42 herritan eman zuen misioaren bat Arantzazuko fraideren batek, batzuetan behin baino gehiagotan. Bizkaian, ostera, 12 herritan, eta Araban 4tan, Aramaio euskalduna barne noski. Nafarroak herri-kopuru erlatiboki handia du zerrenda honetan: 33. Euskal Herritik erbestearen hogeiren bat Misio eskaini ziren, eta identifikatu gabeko bizpahiru ere baditugu.

Gipuzkoan, denean daude presente, baina trinkoagoa da hori Debaldean, alboko Eibar edo Elgeta ahanzi gabe, edo Goierrin, Legazpitik hasi eta Legorreta nahiz Zegamaraino; Donostialdean, hirira eta inguruko zenbait herritaraino iristen zen Arantzazuko fraidea, Astigarraga eta Hernanitik hasita. Hutsune bat dago hemen nabaria, Tolosaldea, nahiz eta Alkiza edo Berastegi bederen hor dauden. Seguraski, parroketako deiak Tolosako komentura zuzentzen ziren, eta bertako nahiz Zarautz hurbilagoko komentuetatik eratzuten zitzaizen Tolosaldeko eskeei (Garate edo Peñagarikano tarteko zirela ziurki).

Nafarroako Arantzazu-zaletasuna deigarria da hemen, lehenago beste testuinguru batean ikusi dugun bezala. 1944-1984. etan Nafarroa euskalduna da frantziskotarren Misio-lantegia (Erriberako salbuespen bakar batekin: Kaparroso),

Barrankatik Baztaneraino, eta Aezkoara ere luzatu zen Arantzazuko enemu nafar hau.

Itxura guztiz, Bizkaiko lana hango komentuenan izan zen, gehienez ere Arantzazutik laguntzaren bat edo beste jasoz, izan ere euskalkiak ahal zelarik fraide bizkaitarrak eskatzen zituen. Honelako bizkaitar euskaldunik egon da, ordea, Santutegiko predikarien artean (J. Zubieta), eta Santutegiko giputzen batek ere eskaini zuen lankidetzarik Bizkaian (Garmendia). Enkartazioetan, Balmaseda eta Guenes dira Arantzazuko fraideek ikustatuko dituztenak.

Arabako lau Misioak han-hemen emanak izan ziren, oso bakanak: Labraza eta Eltziego behealdean, Dallo eta Aramaio iparraldean.

Herrietako Misio-ekimen hauek ez ziren modu berean gertatu beti: Hiriburuetan, Donostia eta Bilbon egin zuten lan frantziskotarrek, baina ez Baiona, Gasteiz edo Iruñean (hiriok ez zuten frantziskotarren^{ofm} komenturik). Iruñean kaputxinoak ziren nagusi, eta beren kontu joan zen Hiriko Misio handia (1954).

Probintzi barnean, batzuetan herri handi osoa zen Misioak hartu zuena (Eibar edo Hernaniren kasuak); bestetan, ostera, halako herrietako auzoren bat bakarrik (Bergara, Eskoriatza, edo Deban hurrenez hurren Labe Garaiak, Bolibar, Itziar-Lasturko kasuak, esaterako).

Toki gehienetan Misio bat edo bi izan dira emanak, baina baditugu gehiagokoak ere: Bergara, auzo ezberdinetan emandako zazpirekin; Aia, eta Hernani bosnarekin, Antzuola, Astigarraga, Eskoriatza, Legazpi edo Zegama launa misioaldirekin; hiru eta binakoak ugariago dira: Arantzazu eta Deba (hiruna), Goizuetatik Aizarnara, Bakaikutik Mutrikura, etab. (binarekin).

Hemen estatistikoki aintzakotzat hartu ditugun lehenengo hiru urteetan (1944-1946) Gipuzkoan egin zuten lan Santutegiko fraideek, 1947an Goizueta izan zen epealdi aztertu honetan lehen herri nafarra, eta urtebete geroago Errigoiti

Bizkaian, eta 1949an ageri da lehen herri arabarra: Aramaio. Hortik aurrera herrialde bateko nahiz besteko herriak nahasian datoz, Elizondo nafarraren ondoren Labraza (1952), Ondarroaren ondoan Albiztur (1953), Antzuola Guenesekin (1960), Luzaide Arantzazuko Auzoarekin (1961), Ibarrangelu Mendataren ondoan (1966), etab., guztiari bi herri nafarrekin (Arribe eta Sunbilla) eta Santanderko batekin amaiera emanez (Soto de la Marina).

Hau izan da, lerro nagusietan, Arantzazutik egindako Misio-lana, eta ibili izandako herriak. Eta nortzuk izan ziren misiolariak?

3. 3. Arantzazuko sermolari misiolariak

XIX. mendeko izanberrikuntzaren ondoren fraideen artean ez zen egon juridikoki eta arautegien arabera «predikari» titulurik eman izan zitzaionik: ofizioa bai, titulurik ez, alegia. Era berean, Misiolari-Kolejiorik ere ez zen ireki Hegoaldean, komentua izanberritzean (1859, 1876). Aitzitik, handik hona fraide apaiz guztiek pasa izan dute predikaritarako azterketa, eta lortu horretarako baimena.

Hala ere, Kontzilio aurrean batik bat, ez dira denak gisa berean predikari eta gutxiago misiolari bilakatu. Horretan zeresan handia izan dute norberaren gaitasun, prestakuntza, hautapen eta jardunak. Zentzu honetan, ba, esan beharra dago gutxi batzuk izan direla XX.ean ere «predikariak-misiolariak».

Hasteko, Santutegiko komentu izanberrituko lehen orduetan, lehenagoko fraide predikari sonatuak dauzkagu Arantzazun (1881), J. J. Salazar (1805-1882) horien artean. Predikari-tradizio indarberrituaren arrakasta-sinboloa izan daiteke Aita D. Baertel, Kronikako lehen albisteen arabera, 1918-1920 etan Oñatiko Bidaurretan zegoena.

Dena den, badirudi gerraurrean Arantzazura ez zela bildu predikari-talde azkarrik, nahiz eta gerra zibilaren bezperan —esan dugu— Misioterako adinako lagunarterik baze-

goen. Gerraostean indarririk franko hartu zuen, ordea, zerbitzu horrek. baina ez talde handirik sortu zelako, zeuden sermolari prestu gutxi haiek Herri-Misioak hobetsi eta gaitasun eta gogo biziak erakutsi zituztelako baizik.

Berrogeita bat urtetan (1944-1984) zenbatu ahal izan ditugun Arantzazuko komentuko herri-misiolariak 22 dira, beti edo denbora batez Santutegitik lan egin dutenak. Askok eta askok, gero Santutegitik irtetean, beste komentuetatik lan egin zuen Misio horietan. Beste nolabait esanda, Arantzazun egon da bertara baino lehen edo ondoren, Misio hauetan parte hartu duenik, nahiz eta, bistan da, beste lekutatik egindakoaz Santutegiko Kronikak ez eman berririk.

Dagoeneko iradoki ditugun arrazoiengatik, bakoitzaren ekarpena tamaina ezberdinekoa izan da. Misiotan arantzazuarrena, eta emankorrena ere, Demetrio Garmendia izan da: Kronikak Aita Demetrioren 54 Misioaldiren albistea jaso du.

Demetrio Garmendia Otegi (1908-1999) Berrobiko semea zen (Gipuzkoa); 1926an hartu zuen habitua frantziskotarra, eta 1934an egin zen apaiz. Fraide honen soslai erlijio-soa batez ere predikariarena izan da. Euskaltzale fina, idatzi ere egin zuen, eta herritar askoren oroimenean bere etorri bizi eta herritarragatik geratu da bizirik Garmendia.

Gerraurretik apaiztua zenez, eta gerraostean Misiotan ondoan izango zituenak baino hamar-hamabosten bat urte gazteago izanik, Demetrio izan zen denen artean lehen aita-ponteko eskarmentatua. Hainbat lagunekin bikotea osatzen zuela egin zuen lan Herri-Misioetan (lehen urteetan, J. Olaizolarekin), baina 1945-1953.etan Agirretxerekin berezikiago. Lehen predikuak gerraurrean edo gerratean bertan egin ondoren (azpimarratzekoa da orduan Bizkaiko egonaldia), beranduenik 1942tik aurrera Arantzazun bizi izan zen, harik eta Arrasateko komentu izanberrituaren ardura eman zitzaion arte (1954). Han bizi arren, Arantzazuko Andre Mariaren herriz herriko ibilaldian (1956) berea izan zen ahots entzunenetako bat. 1958an Santutegiko Aita Goardia-

no izendatu zuten, eta bertako agintaldia bukatzean (1961) Arrasatera itzuli zen. Geroztik han eman zuen bizitza osoa, hil zen arte.

E. Agirretxe izan zen Santutegiko beste predikari enblematikoa. Errezilen sortua (1920), 22 Misioaldi eman zituen Arantzazutik (1945-1953: dakigunez, lehenengoa Garmendiarekin Arantzazun bertan, eta azkena Eibarren). Ondoren, noski, beste komentuetatik egin zuen lan Herri-Misioetan.

K. Gastesi ere gogoratzekoa da (1915-1994). Aita Gastesiren lana batez ere Gogo-Jardunena izan zen, eta Gogartexez hemen bertan daukagun idazlanean ikus daiteke horren berri; dena den, Gogartexekoaz aparte, herrietako Gogo-Jardun irekiak ere ezin dira ahantzi. Herri-Misioetan 9 kontatu ahal izan dizkiogu Kronikan.

Julian Alustiza Gabiriko Aztirian jaioa da (1913), eta gerrarekin batera apaiz eginik (1936), Gaztelan eman zituen lehen urteak (1936-1943: Burgos, Soria, Valladolid); Euskal Herriratu eta Erriberri (1943-1949), Bilbo (1949-1952), Tolosa (1952-1955), Zarautz (1958-1960) eta Arantzazun (1955-1958, 1960-2000...) eman ditu bere bizialdiak. Euskal olerkari eta prosista, predikari elebiduna izan da. Arantzazutik ia beti euskaraz egin du lan, eta 24 Misioaldi zenbatu dizkiogu, hemendik emandakoak, asko Nafarroa euskaldunean (18); beste inor baino areago, nafarren predikaria izan da J. Alustiza, lehenengo Erriberriko komentutik Erriberan (gaztelaniaz), eta gero, Arantzazutik hango Mendialdean, euskaraz. Besteak beste, Arantzazutik bertatik, Garmendia, Arabaolaza, I. Alustiza eta Garaialde izan zituen Misiolari lagunak.

Kopuruz, Santutegian hurrena datorrena Aita Joan Arabaolaza oñatiarra dugu (1925-1988). Arabaolaza 1951n apaiztu zen, jada Misioak beren indar betean zeudenean, eta hurrengo hamar-hamabost urteetan fraide-apaiz gazteak izandako arrakasta frantziskotarren eta hainbat herritarren oroi-menean geratu da. Gogo-Jardunetan bezala Misioetan entzuleen artean erakarmen azkarra izan zuen, batez ere emaku-

mezkoen eta nesken artean. Arantzazun bizi izan zen 1951-1963.etan, eta 19 Misio zenbatu dizkiogu Santutegitik emandakoak, Gipuzkoan eta Nafarroan lekutuak, baina Gogo-Jardunen lana ere gogoan hartu behar zaio.

Bere Misio-kopuruz (17) hurrena datorrena M. Inurritegi da (Oñati: j. 1925). Arabaolazarekin batera apaiztu zen (1951), eta Hirugarren Ordenaren barruti-arduradun zen bitartean eman zituen Arantzazutik Misioak (1952-1957), frantziskotarrek ibilienak zituzten herrietan, Nafarroan eta Gipuzkoan batez ere.

Bizpahiru izen gelditzen zaizkigu aipatzeko, Kronikaren araberako kopuruekin gogoratzekoak: F. Agirre (Azpeitia-Aratzerreka, 1927), 10 Misio aipaturekin; Ildefonso Alustiza 9rekin (Zerain, 1932), J. M. Eizagirre eta J. Zubieta 8narekin, P. Aranguren 7rekin. Azkenik, Arantzazutik banakaren bat edo beste emandakoak daude: J. A. Etxeberria (3), F. Altube, J. A. de Eulate, J. A. Astigarraga, J. M. Garaialde, I. Omaetxeberria, A. Uberuaga, K. Zubizarreta.

Bukatzeko, Aita L. Esnal-en (Andoain, 1918) jarduera aipagarria da, Herri-Misioak kasik edo guztiz desagertu zirenean bere bideari eutsi ziolako. Esan dugu zerbait, baina gehitu dezagun bere datua: gutxienez, 24 Misioaldi eman zituen, batzuetan Aita A. Kerexeta lagun zuela (†1993).

Gizon hauen jarduera-molde honen lekuko zabala da Santutegiko Kronika. Nahiz eta ez den albiste-iturri erabat osoa, bere datu ugariekin balioko du azterlan historiko hobegorik egiteko ere. Hemen, prediku-eremu mugatu batetik hasita (Herri-Misioetatik, esan nahi da), lehen hurbilpen bat egin nahi izan dugu Santutegiko sermolaritzaren historiara. Besterik ez.

4. AZKEN OHARRAK

Idazlan honetako orrialdeok Arantzazuko lanaz mintzatu dira, eta hor ere modu mugatuan, batez ere Herri-Misioak gogoan izanik. Beraz, amaitu aurretik esan beharra

dago, Santutegitik egindako prediku-lan osoa ez dela jaso, eta gutxiago frantziskotarren Arantzazuko Probintziarena.

Zarauzko nahiz Erriberri-Oliteko Misio-tradizio handia ez da aintzakotzat hartu hemen, mugatutako epealditik kanpo zegoelako (Esklaustrazio-aurrekoaz ari gara). Komentuen izanberritzearen ondoren eta gerra zibilaren aurretik (1876-1936), Probintzia erlijiosoko prediku-lan handiena beste komentuetatik egin zen, ez bereziki Arantzazutik (gogorra Ugarte, Baertel, etab.). Gerra ondoren ere, gainerako komentuek lekurik aski eta gehiago izan zuten lanbide horre-

tan, baina orduan Arantzazuri lehenengoan artean egotea egokitu zitzaion.

Dena den, herri askotan nonahitik zetorrela ere, sermoilari frantziskotarra "Arantzazuko prailea" gertatzen zen, eta ondorioz Santutegiaren irudi sozialak gora egiten zuten, Misioa edo prediku-lana egokiro bete zen heinean. Hau da, azkenik Santutegiak bereak eta inorenak ere etxerako irabazten zituen.

Sermolaritza izan zen, zalantzarik gabe, Santutegiaren estimua jaso zuen faktore bizkorrenetako bat.